

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

1/2019 kreditu gehigarriaren espedientea onestea

Udalbatzak, 2019ko apirilaren 3ko osoko bilkura berezian, erabaki zuen hasierako onespena ematea 1/2019 kreditu gehigarriaren espedienteari.

Bat etorri 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onetsizat emango da epe horren barruan erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Moreda Araba, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea

MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA